**EMI/AIO** **8P A.D. 8-C/2019**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko errepideetako egitura eta ezpondetan ainguraketa asko jarrita daudenez, horiek berrikusi egin behar dira, orain nola dauden ikusteko eta jarri zirenetik aldaketarik izan duten jakiteko, izan ere, lurreko ainguraketen segurtasun baldintzak aldatu egin daitezke denborarekin, batez ere, ezarrita dauden ingurunearen baldintzak aldatuz gero.

El elevado número de anclajes instalados en las estructuras y taludes de la Red de Carreteras de la Diputación Foral requiere la revisión de los mismos para determinar su estado actual y su comportamiento desde su puesta en servicio, ya que las condiciones de seguridad de los anclajes al terreno pueden variar con el tiempo, sobre todo si se modifican las características del entorno en el que están dispuestos.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2002. urtetik eta geologia eta geoteknia arloko kanpoko zerbitzuak kontratatuta, ainguraketak ikuskatu eta kontrolatzeko programak egin ohi ditu aldizka Gipuzkoako Aldundiaren sareko errepideetako egituretan eta ezpondetan.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, desde el año 2002 mediante la contratación de servicios externos en geología y geotecnia, viene realizando periódicamente sucesivos programas de inspección y control de anclajes en las estructuras y taludes de las carreteras pertenecientes a la red foral de Gipuzkoa.

Lanak bizkor eta sistematikoki egin daitezen programatu eta antolatzeko, eta Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak ez duenez lan horiek egiteko adinako baliabide materialik eta langilerik, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuak proposatu du ahalmen handiko errepideetan lan horiek zerbitzu kontratu baten bidez egitea.

Con objeto de programar y ordenar la ejecución de los citados trabajos de una forma ágil y sistemática, y al no disponer la Dirección General de Carreteras de los medios materiales y humanos necesarios para la realización de estos trabajos, el Servicio de Rehabilitación de Infraestructuras Viarias e Innovación ha propuesto su ejecución mediante un contrato de servicios.

Azaldutakoaren ondorioz, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuak preskripzio teknikoen agiria idatzi du **Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sareko egituretan eta ezpondetan jarrita dauden ainguraketak ikuskatzea eta kontrolatzea (5-O-28/2018)** zerbitzua kontratatzeko. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 370.623 euro da, BEZa barne, eta lanak egiteko epea hogeita lau hilabete, beste hogeita hamasei hilabetez luza daitekeena.

Conforme a lo expuesto, el Servicio de Rehabilitación de Infraestructuras Viarias e Innovación ha redactado el pliego de prescripciones técnicas para la contratación de los servicios de «Inspección y Control de los Anclajes colocados en Estructuras y Taludes en la Red de Carreteras de la Diputación foral de Gipuzkoa (5-O-28/2018)», con un presupuesto base de licitación de 370.623 euros (IVA incluido) y un plazo de ejecución de veinticuatro meses, prorrogable por otros treinta y seis meses más.

Kontratuaren balio zenbatetsia 765.750 euro da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 101. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

El valor estimado del contrato, a efectos de lo dispuesto en el artículo 101 de la Ley de Contratos del Sector Público, asciende a 765.750 euros.

Bestalde, kontratatuko den zerbitzuak traktu jarraituko eta etengabeko izaera duenez, kontratuaren urte anitzeko aurrekontua urtero baimendu da, horixe ezartzen baitute Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzko araudiak eta Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak onartzeko urteroko foru arauek.

Por otro lado, dada la calificación del contrato como de tracto sucesivo, procede autorizar y disponer anualmente el presupuesto plurianual del contrato con cargo al presupuesto del ejercicio correspondiente, de conformidad con lo establecido en la normativa sobre régimen financiero y presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en las normas forales anuales por las que se aprueban los presupuestos generales del Territorio Histórico.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren eta Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuak proposatuta,

En virtud de lo expuesto, este Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta de la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias

**ERABAKITZEN DU**

**A C U E R D A**

**Lehenengo.-** Preskripzio teknikoen agiria onestea, zerbitzu hau kontratatzeko: «Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sareko egituretan eta ezpondetan jarrita dauden ainguraketak ikuskatzea eta kontrolatzea (5-O-28/2018)».

**Primero.-** Aprobar el pliego de prescripciones técnicas para la contratación de los servicios de «Inspección y Control de los Anclajes colocados en Estructuras y Taludes en la Red de Carreteras de la Diputación foral de Gipuzkoa (5-O-28/2018)».

**Bigarren.-** Onartzea administrazio klausula-partikularren agiria, aipatutako lanak kontratatzeko. Epea hogeita lau hilabete izango da, beste hogeita hamasei hilabetez luza daitekeena; eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 306.300 euro, gehi % 21eko BEZari dagozkion 64.323 euro, eta balio zenbatetsia 765.750 euro, urteko hauetan banatuta:

**Segundo.-** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares para la contratación de los servicios de referencia, con un plazo de ejecución de veinticuatro (24) meses, prorrogable por otros treinta y seis (36) meses, y un presupuesto base de licitación de 306.300 euros, más 64.323 euros en concepto de IVA (21%), un valor estimado de 765.750 euros, con la siguiente distribución de anualidades:

| **Ekitaldia/Ejercicio** | **Zenbatekoa/Importe** |
|---|---|
| 2019 | 46.327,88 € |
| 2020 | 185.311,50 € |
| 2021 | 138.983,62 € |

Kontratuaren balio zenbatetsia, izan ditzakeen luzapenak barruan hartuta, 765.750 euro da, BEZik gabe.

El valor estimado del contrato, incluidas las eventuales prórrogas, asciende a 765.750 euros, IVA excluido.

**Hirugarren**.- Xedatzea berrogeita sei mila hirurehun eta hogeita zazpi euro eta laurogeita zortzi zentimo (46.327,88 €), BEZa barne, indarrean dagoen aurrekontuko 1.0710.120.611.03.02 partidaren kontura.

**Laugarren.**- Onartzea kontratazio espedientea, eta hasiera ematea kontratua adjudikatzeko prozedura irekiari.

**Bosgarren.**- Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea, lizitazioko tramiteak egin ondoren kontratua adjudikatzeko; Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean kontratua sinatzeko; 2020. eta 2021. urteei dagokien gastua baimendu eta xedatzeko; urtekoak benetako premietara egokitzeko; eta kontratua zehatz-mehatz bete eta lanak behar bezala burutzearren komeni dena egiteko, erabakitzeko eta ebazteko; kontratuaren aldaketak onartuta administrazio klausula-partikularren agirian aurreikusitako aldaketen kasuan.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian. Horretarako, BI HILABETEKO EPEA dute, argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen orrien aurka kontratazio alorreko hautazko errekurtso berezia

**Tercero**.- Autorizar un gasto de cuarenta y seis mil trescientos veintisiete euros con ochenta y ocho céntimos (46.327,88 €), IVA incluido, con cargo a la partida 1.0710.120.611.03.02 del vigente presupuesto.

**Cuarto.**- Aprobar el expediente de contratación y disponer la apertura del procedimiento abierto para su adjudicación.

**Quinto.**- Facultar a la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias para decidir sobre la adjudicación del contrato, previos los trámites licitatorios oportunos, formalizarlo en nombre de la Diputación Foral de Gipuzkoa; autorizar y disponer el gasto correspondiente a las anualidades de los años 2020 y 2021; reajustar las anualidades a las necesidades reales; y adoptar, en general, cuantos actos, decisiones y resoluciones resulten convenientes para la correcta ejecución de los trabajos y exacto cumplimiento del contrato, incluida la aprobación de las modificaciones del contrato, en el caso de las modificaciones previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer,

aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren hurrengo egunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

previa y potestativamente, el recurso especial en materia de contratación ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente

Donostia, 2019ko martxoaren 14a.

San Sebastián, 14 de marzo de 2019.

FORU DIPUTATUA / LA DIPUTADA FORAL

Aintzane Oiarbide Iruretagoiena.

DIPUTATUEN KONTSEILUA.- Aurreko proposamena onartzea erabaki du.

EL CONSEJO DE GOBIERNO FORAL.- Acuerda prestar aprobación a la precedente propuesta.

Donostia, 2019ko martxoaren 26a. / San Sebastián, 26 de marzo de 2019.

NORI JAKINARAZIA / COMUNICADO A:
FINANTZAK ETA AURREKONTUAK / FINANZAS Y PRESUPUESTOS